



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA							Kodea: 014777		
ARLOA / IRAKASGAIA	GORPUTZ HEZKUNTZA							DATA	2017-2018	
MAILA	3. ZIKLO A								3. zikoa	
1	ARLOAREN GUTXIENeko HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA									
	<ol style="list-style-type: none"> Lekualdaketak eta saltoak inguru desberdinen arabera egokitu, horiek ezezagunak izanez, zalantza eragiteko. Pilotak edo beste tresna higikor batzuk jaurti, pasa eta horiei harrera egin –kontrola galdu gabe - horiek eskatzen dituzten mugimen jarduerak betez, jarduerak jokalekuaren, distantzien eta ibilbideen arabera egokitzeko. Era koordinatuan eta lankidetzan jardutea, helburuak lortuz, taldekako jolas batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko (bai erasotzaile gisa, bai defentsa gisa). Jolasak eta kirol-jarduerak eginez, pertsona bakoitzaren ahalegina eta taldekideekin egiten diren harremanak funtsezko balio hartu horiei jarraiki jarduteko. Jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen diren gatazka-egoerak ezagutu, iritzi koherentea eta kritikoa emanez, jarrera egokia agertzeko. Jarrera aktiboa agertu, egoera fisikoa hobetuz, bere jarduna gorputzak eta mugimenduek dituzten aukeren eta mugen arabera egokitzeko Ikaskideekin elkarrekintzan, taldekako konposizioak egitea; horretarako, musikazko, plastikozko edo hitzezko estimuluak hartuko dira oinarri, gorputz-adierazpeneko baliabideak erabiliz. Jarduera fisikoak behar bezala eta sarritan egiteak osasuna hobetzearekin dituen zenbait lotura ezagutu horiei jarraiki jarduteko. Tradizio ludikoen eta tradizio fisiko nahiz kirol tradizioen gizarte- eta kultura-kutsua aintzat hartu, euskal kulturako eta beste kultura batzuetako balioak errespetatzeko eta balioesteko. 									
2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA									
	1. ebaluazioa			2. ebaluazioa			3. ebaluazioa			
	<ul style="list-style-type: none"> hautemate- eta mugimen-gaitasunak. mugimen-trebetasunak gorputz adierazpena eta komunikazioa jarduera fisikoa eta 			<ul style="list-style-type: none"> hautemate- eta mugimen-gaitasunak. mugimen-trebetasunak gorputz adierazpena eta komunikazioa jarduera fisikoa eta 			<ul style="list-style-type: none"> hautemate- eta mugimen-gaitasunak. mugimen-trebetasunak gorputz adierazpena eta komunikazioa jarduera fisikoa eta 			



- osasuna.
jolasak eta kirolak

- osasuna.
jolasak eta kirolak

- osasuna.
jolasak eta kirolak

3

EBALUAZIO- IRIZPIDEAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

EB1.01. Mugimen-arazoak konpontzea eta, gero eta konplexuago den inguruko ezaugarrietara trebetasunak egokitzea.

EB2.02. Gorputza tresna higikorren norabidearen aldera mugitzea.

EB2.03. Ohiko eremuetan sortzen diren arazoak konpontzeko mugimen-trebetasunak erabiltzea.

EB3.04. Eremua behar bezala okupatzea, lankidetzak eta aurre egiteak errazteko.

EB3.05. Taldekako jolasetan tresna higikorrek behar bezala geldiaraztea.

EB4.06. Kirol-jarduerak egitean norbanakoaren ezaugarri fisikoetan dauden aldeak onartzea.

EB4.07. Bere garapen fisikoaren mailaren arabera ahalegina egokitzea.

EB4.08. Jardueretan beti garbi jokatzeko.

EB5.09. Eztatidetan parte hartzea, eta, bere irizpidea agertzeaz gain gainerakoen irizpidea errespetatzea.

EB6.10. Bere egoera fisikoan interesa agertzea.

EB6.11. Jarduera fisikoak egitean esfortzua neurtzea.

EB7.12. Musika-koreografia txikiak taldean egitea.

EB7.13. Adierazpen-elementuak lasaitasunez, naturaltasunez eta bere estiloarekin transmititzea.

EB8.14. Jarduera fisikoa egiteko prest egotea.

EB8.15. Jarduera fisikoa egitean ohitura osasungarrien kontzientzia hartzea, bai eta horrek kontsumoohiturekin duen loturarena.

EB9.16. Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako tradizio ludikoak nahiz tradizio fisiko edo kiroltradizioak

ezagutzea eta gauzatzen jakitea.

EB9.17. Euskal tradizio ludikoaren ezaugarriak interpretatzea eta balioestea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluatzerako orduan unitate didaktiko bakoitzean berezkoak eta orokorrak diren ebaluazio irizpideak aztertuko ditugu. Irakaslearen behaketa koadernoan erabiliko dugu.

BEREZKOAK %60: unitate bakoitzean lantzen diren eduki espezifikoak.

OROKORRAK %40: unitate guztietan lantzen diren edukiak (jarrera, parte hartzea, arauak errespetatzea, osasun ohiturak,...)

Ebaluazioa eta eguneroko lanaren behaketarako irakaslearen koadernoan erabiliko da.